



*XXren neba naiz*  
eta bost ipuin gehiago

FLEUR JAEGGY

itzulpena: Irene Hurtado de Saratxo Mendieta



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

FLEUR JAEGGY

*XXren neba naiz*  
eta bost ipuin gehiago

itzulpena:

Irene Hurtado de Saratxo Mendieta



## EGILEA

Fleur Jaeggy 1940an jaio zen Zurichen (Suitzan), eta italieraz idazten duen idazlea da.

Hurtzarotik hiru hizkuntzatan hezia (alemana, italiera eta frantsesa), ikasketak Suitzan amaitu ondoren, Jaeggy Erromara joan zen bizitzera, eta han Ingeborg Bachmann eta Thomas Bernhard ezagutu zituen. 1968an Milanera joan zen Adelphi Edizioni argitaletxearentzat lan egitera, eta Roberto Calasso idazle eta editorearekin ezkondu zen. Argitaletxe horrek argitaratu ditu bere lan guztiak Italian.

Bere lehen maisulana *I beati anni del castigo* (1989) eleberria izan zen. *Times Literary Supplement* egunkariak *Proleterka* eleberria izendatu zuen 2003ko libururik onena. Narratzailea izateaz gain, itzultzailea eta saiakeragilea ere bada. Marcel Schwob, Thomas de Quincey eta Robert Schumann itzuli ditu italierara, eta John Keats eta Robert Walser-i buruz idatzi du. Bere liburuak hainbat hizkuntzatarara itzuli dira. "Kultuzko" egiletzat hartzen da eta munduan pisurik handiena duen Italiako egileetako bat da. Franco Battiato musikari italiarrarekin ere lan egina da.

*Sono il fratello di XX* liburuko kontakizun laburretan, bere mundu hotz ezagun eta bitxira itzultzen gara, eta bertan ageri dira hain miretsia zuen Brodsky, Ingeborg Bachmann laguna, baita Oliver Sacks ere, Bronxeko jateetxe batean afaltzen.

Brodskyk, Estatu Batuetara emigratutako errusiar poeta handiak, zera esan zuen behin Fleur Jaeggy idazleari buruz: «Irakurketaren iraupena ordubete ingurukoa da. Oroitzapenaren eta egilearen iraupena, berriz, bizitza osokoa». Susan Sontagek, bestalde, «distiratsu eta basatitzat» jo zuen. Guk lan hauek nabarmenduko ditugu:

Eleberriak eta kontakizun laburren bildumak

*Le estatua d'acqua*, Adelphi, 1980.

*I beati anni del castigo*, Adelphi, 1989.

*La paura del cielo*, Adelphi, 1994.

*Proleterka*, Adelphi, 2001 [Euskaraz, *Proleterka*, Miren Iriarte eta Fernando Rey itzultzaileak.

*Literatura Unibertsala*, Erein eta Igela argitaletxeak, 2018].

*Sono fratello il di XX*, Adelphi, 2014.

Itzulpenak

Marcel Schwob, *Vite immaginarie*, Adelphi, 1972 [Euskaraz, *Bizi alegiazkoak*, Juan Garzia Garmendia itzultzailea. *Literatura Unibertsala*, Ibaizabal, Zornotza, 2002].

Thomas de Quincey, *Gli ultimi giorni di Immanuel Kant*, Adelphi, 1983.

Irene Hurtado de Saratxo Mendieta

# AURKIBIDEA

XXren neba naiz

Gela aseptikoa

Enkontru bat Bronxen

Tropikoak

Katua

Izenak

## XXren neba naiz

XXren neba naiz. Berak garai batean hizpide izan zuen haurra naiz. Eta berak sekula hizpide izan ez zuen idazlea naiz. Aipatu baizik egin ez zuena. Nire koaderno beltza aipatu zuen. Nitaz idatzi zuen. Etxean izandako solasaldiak ere kontatu zituen. Etxekoak artekoak. Nola jakin behar nuen espioi bat zegoela gure mahaian. Salatari bat zegoela gure etxean. Eta nor izango eta bera, arreba. Nik baino zazpi urte gehiago ditu. Amari behatzen zion, gure amari, aitari, gure aitari, eta niri. Baina niri ez zitzaidan axola arreba guri beha egotea. Guri guztioi elkarrekin. Eta gero hortik ibiltzea kontuak haizatzen. Behin, zortzi urte nituela, amonak galdetu zidan, zer egin nahi duzu handitan? Eta erantzun nion, hil egin nahi dut. Handitan hil egin nahi dut. Aurki hil nahi dut. Eta nik uste arrebari izugarri gustatu zitzaiola nire erantzuna. Berandu egin genuen elkarren ezaguera, berak eta biok. Gutxi gorabehera zortzi urte nituela. Lehenago ia sekula ez genion elkarri hitzik egiten. Esaten zuten autista samarra nintzela, baina ez zen egia. Nahiago nuen ez hitz egin. Arrebak, berriz, nahiago zuen behatu. Beraz, isilik egon nintzen bitartean, berak ez zuen modurik izan nitaz ezer haizatzeko. Zer esan behar zuen isilik egon, gogaitu ez, ia ikusezina den neba batez? Nire helburua zera baitzen, ikusezin izatea etxekoentzat. Etxekoak nituen arreba salataria, ama, zorizko jokoen zale porrokatua, eta aita sentibera eta arretagabea. Bide batez, behingoan esan nahi dut pertsona sentiberak arretagabeak direla. Bost axola zaie besteen berri. Pertsona sentiberak, edo sentiberatzat hartzeko adina sentibera direnak, hori egundoko ezaugarri bat balitz bezala, sorgorrak dira besteen oinazeekiko. Baina oraingoz ez dut oinazeaz mintzatu nahi. Zera besterik ez dut aipatu nahi, arreba, espioia, eta neroni. Izenburu bat jarri beharko nioke txosten honi. Neba. XXren neba. Mendiak maite ez dituen izaki bat. Ikastetxe batean barrendu zuten mendi baten goialdean. Ikastetxea harkaitz-sail bati begira zegoen. Han zuhaitzik ere ez zegoen. Bihurgunez beteriko bidexka batetik iristen zen mendi goialdera. Eta gozatua izaten zen bihurguneetan bizkortzea. Behean, amildegia. Garai hartan ez nuen gidatzen, neba txikia nintzen. Ikastetxe hartan ez nintzen luzaro gelditu, baina urte luze-luze batez bai, behintzat. Leihotik begiratzen nuen. Harkaitzak. Eta amildegi txiki haiek, gailurra beherantz zutenak, triangelu alderantzikatuak. Ikusten nuen guztia zegoen alderantzikaturik. Guztia zegoen buruz behera. Nire gogoetak bezala. Behin, arreba XX MG kabriolet batean etorri zitzaidan ikustera. Bizkortu egiten zuen bihurguneetan. Hura gozatua zela esan zidan. Hatzak mozturiko eskularruak erantzi bitartean. Harri baten gainean eseri ginen. Txeraz begiratzen zidan. Alde egiteko irrikan zegoen. Garai hartan hainbat mutil-lagun

zituen. Hitzordu franko. Eta seguruena, niri bisita egin bitartean, bisita hura agindua baitzidan gainera, nonbait, ordu berean aginduko zion hitzordua haietakoren bati. Eskua jartzen dit bizkarrean. Ez du luze joko. Urte bukaeran etorriko naiz zure bila eta etxera itzuliko zara, esaten du. Harri puntazorrotz urdin haiek guztiek inguraturik, sentitzen nuen elkar maite genuela. Ez zegoen besterik, unibertsoan. Etxe bat non bazirudien igande hartan beste mutil guztiak lo zeudela, eta txoriak ere bai, beleak ere bai, azeriak ere bai, lo-giro lazgarri bat zegoen, azken loaldikoa, betierekoa. Bera eta ni bakarrik esna. Neba esna. Arreba XX esna. Ederra zen arreba. Elkar maite genuen bitartean, igande arratsalde hartan harri artean, sentitzen nuen berak bere jantziak maite zituela, hain zuzen, koadroekiko alkandora eder bat, igandeko sportekoa, gizonaekoena, lepoan botoitxoak zituena, mahukak ukondoraino jasota, galtza estu lokatz-kolorekoak, edo udazken zimel, edo hosto zimelaren kolorekoak, eta mokasin alberjiniakolorekoak puntan txanpon bat zutenak. Eta urrezko eskumuturreko fin bat ere bai, zafiro biribil txikiakin. Bide batez, nik ere, mendi goialdeko etxean gatibu egonda ere, nolabait ere oso gogokoak nituen alkandorak. Eta egun hartan zera besterik ez neraman, alkandora urdin argi bat, joskera onekoa, belusezko galtzak, arreba XXXrenek zuten kolore berekoak ia, ez dakit zergatik bururatu zaidan X gehiago eranstea bere izenari, aski litzateke batekin. Beraz, barkatu eransten baditut. Galtzak ia kolore berekoak, baina ilunxeagoak, marroia eta urdin argia ondo uztartzen baitira. Gure koloreek, gure jantzien eta gure larruazalaren koloreek, harri urdin ilunxkoen ondoan, ikuskizun ederra osatzen zuten. Nebak eta arrebak elkar maite dute. Hala esango zuten, beren lozorro betierekoan egon ez balira, ikaskideek.

Eta, hala ere, egun hartan ere arreba XX niri zelatan zegoen. Hona zer idatzi zuen. Ikastetxe aldera egin zuen neba ikustera (eta ikastetxearen izena esaten du, nik aipatzea saihesten dudan arren), hain zegoen triste, hain dohakabe, non korapilo bat egin baitzitzaion eztarrian — korapilo bat egin omen zitzaion eztarrian, handik minutu gutxira zera idatzi bazuen ere, Ni, eta letra larriz idazten dut, triste nengoela, hil egin nahi nuela. Ezin nuela gehiago eraman hondamenezko toki hura. Eta berak hondamenezko toki hura marrazten eta asmatzen du, nebaren tristura adierazi eta leku poetiko bihurtu ahal izateko. Hondamena eta tristura ondo uztartzen baitira. Hala nola pentsatzen dudan gure jantziak, edo koloreak behintzat, ondo uztartzen zirela harriekin. Ez aipatzeagatik, bestalde, nire ustezko tristura. Triste al nengoen egun hartan? Ez, ez nengoen triste. Triste ez nengoen egun bakarra zen hura. Arreba etorri baitzen ni ikustera. Bizkortzen baitzuen bihurguneetan. Bere MGa ondo uztartzen baitzen paisaia harekin. Irudipena bainuen ez nengoela bakarrik munduan. Halako irudipena egunero



izaten nuen ikastetxe hartan, mendi goialdean. Onartu beharra daukat, han goian bakarrik sentitzen nintzen. Badakit horrela esatea irriemangarria izan daitekeela. Baina beti sentitu izan dut bakardadea dela izan daitekeen gaitzik makurrena. Arrebari esan nion, egun hartan. Berak esaten zuen gustuko zuela bakardadea. Bitartean gauero ateratzen zen, berandu itzultzen zen, errimela uhertua. Ni esna egoten nintzen itzultzen entzuteko. Denok egoten ginen esna andereñoa itzultzen entzuteko. Gutako inori ez zitzaion gustatzen hainbeste atera zedin.

Nik baino zazpi urte gehiago zituen. Bakardadeaz hitz egiten nion bitartean, berak urrutira begiratzen zuen, gurea inguratzen zuten mendietara, urrutira begiratzen zuen, bazirudien erantzun bat bilatu nahi zuela infinituan, edo mendi-tontorrek eratzen zituzten lerroetan, zeinak iluntzen ari baitziren, ia gaua baitzen, eta arratsaldea izugarri arin igaroa baitzen, urteko gainerako arratsalde guztiak baino arinago. Berak begiratzen zuen, harik eta bere behako astuna erloju-orratzen gainera erori arte. Bakardadeaz hitz egiten nion bitartean, erlojuari begiratzen zion. Bere urrezko erlojua, Longines bat, lau samarra. Hala, ikusi nituen erlojuaren orratz handiak aurreko mendian proiektatzen, Azken Judizioaren antzeko zerbeit bezala. Orratz bat eskuinean, bestea ia zuzen, agurreko ordua seinalatzen. Eta mendi bat orduak seinalatzen hasten denean, akabo da dena. Akabo denbora. Akabo nebak eta arrebak elkar maite zuten garaia. Jantzi dotoreak soinean. Kidetasuna dago jantzien artean. Oso ulerbera izan naiz beti bere jantziekin. Zapatekin. Eskularruekin. Eta batez ere blusekin. Zuri horiek. Estu samarrak. Goiko botoiak askaturik. Berak egun hartan zuen adinera iritsi nintzenean, bakardadeak nire gogoeta guztiak betetzen zituela sentitu arren, oso gogoko nuen beroki urdin bat. Eta etxekoek ondotoxo zekiten zenbat estimatzen nuen beroki urdin hura, jostun italiarrik onenak egina, mutil zoriontsua nintzela pentsatzen zuten. Botila-berde koloreko Mini Morris-a nuelako ere bai. Jantziak izan dira tristura-delitu ugarien estaldura morala, esango zuten auzitegi batean. Nebak, alegia, neronek, bakardade-sentsazio lazgarri hura ezkutatzen zuen beroki baten eta Mini Morris-aren atzean. Arreba XXrengan, oraindik ez dut esan, bazegoen behar bezala ez zebilen zerbeit. Arrandiatzen zuena baino gutxiago dibertitzen zen. Hainbeste zelatatzen zuenez, idazlea izan nahi zuen, alegia, artista, edo ikusi nahi zuen, edota lehiatu, ea zein zen zoriontsuen edo zorigaiztokoan. Aski hitz hutsalak, noski. Baina hitzei sinesgarritasuna eman behar zaie. Besterik ez bada ere, itxuratu behar da beren esanahiaren antz handixko dutela. Beren esanahi lerratuarena.

Gurasoak, bi horiek, ez ditut hizpide hartu nahi, hau neba baten istorioa baita, batez ere nire istorioa, eta arreba batena, batez ere berea, salatariarena. Hizpide hartu nahi ez ditudan biak

telebistari begira egoten dira elkarren ondoan eserita, elkarri helduta ibiltzen dira, ohe handi batean egiten dute lo. Elkarrengandik tarte gutxira hil ziren, eta hil aurretik ez zuten astirik izan gu prestatzeko egonarri gutxikoak izan zirelako, edo agian zazpiki samarrak. Beraz, arreba eta biok bakarrik gelditu ginen etxe handian.

Arreba adi-adi egoten da hitz egiten dudanean. Zelatatzen nau. Beharbada nire istorioa idazten ari da, oraindik hilik ez naizela gurasoen moduan. Beti izan dut errezeloa bietako bat bere erruz hil zela. Gero, nik uste gurasoak beti hiltzen direla seme-alaben erruz. Beti hiltzen da beste inoren erruz. Ez dakit bidezkoa den erruz esatea. Baina besteengatik hiltzen da. Besteen mesedetan, agian bidezkoagoa izango da.

Arrebak, ikasten nagoela, maturità azterketarako prestatu behar baitut, jarraitzen du nire gelan sartzen. Esaten du, ikasten ari al zara? Liburuen gainean makurtuta nagoela. Berak kalera egin nahi du. Eta esaten du maturità gainditu behar dudala kosta ahala kosta. Garrantzitsua dela eta hori guztia. Eta, hala, urduri jartzen naiz, maturità garrantzitsua baldin bada. Zernahi dela ere, garrantzitsua baldin bada, herstura pean jartzen nau. Ezer ez dela garrantzitsua pentsatu bitartean, dena gainditzen dut. Maturità azterketak ere gaindituko nituzke. Baina hain garrantzitsuak badira, haien garrantziarekin desoseguak jota uzteko modukoak, agian ez ditut gaindituko. Arreba XX tematzen da. Gero unibertsitatera joan beharko dut. Lizentziatu beharko dut. Garrantzitsua da.

Kalaka bukatzen duenean azterketen garrantziaz, bizitzan gailurtzearen garrantziaz, lizentziatzearen garrantziaz, bizitzearen garrantziaz, gizon lur joa sentitzen naiz. Garrantziak bere menpean hartua nau erabat. Deuseztatu egin nau. Deuseztatu egiten nau. Bera, arreba XX, gelatik irteten da. Eta bakarrik nago liburuekin, mahaiarekin, eta neronen burua ikusten dut, mintzatu berria den ahotsa duen neba, ikaragarritzko gogoarekin nonbaitetik zintzilikatzeke. Neronen buruari laguntze aldera, bakardadea ibiltzen dut gogoan berriz, nire existentzia inguratzen duen bakardadea. Eta gogoeta hori, beti hain goibela, larria izan dena, orain, bizitzan gailurtzeak duen garrantziaren ondoan, arina da ia. Hitzek pisua dute. Garrantziak bakardadeak baino pisu gehiago du. Hala ere, badakit bakardadea larriagoa dela. Baina bizitzan gailurtzearen garrantzia urka-bilur bat da. Urka-bilur bat besterik ez da.

Gauetz ezin dut lorik egin, baten batekin hitz egiteko gogoia egin zait. Laurak dira. Jaiki eta arreba XXren bila noa. Gela hutsik dago. Lurrin lauso bat, zapata asko lurrean. Beharbada erabakitzeke zalantza izango da. Behakoa ematen diet ezin konta ahala zapatari. Badirudi beren kabuz itzuli direla etxera. Takoi horien jabeak agian ezbeharren bat izan duela eta itzultzerik ez daukala.

Baina zapatak, ondotxo baitakite nola bueltatu, gelara itzuliak dira. Eta bitartean bakardade-sentsazio horrek hartzen nau berriz. Arreba XX ez dago. Hasia naiz pentsatzen zerbait gertatu zaiola. Zapatak beren kabuz itzuli baitira. Deitzen dut ospitale guztietara, poliziara. Bere arrastorik ez. Bere ohean esertzen naiz. Handik ordu batzuetara itzuli, eta galdetzen du ea zertan ari naizen bere ohean. Ohartu gabea nengoen, baina oinetan bere zapatak nituen. Zin dagit ez ditudala zapatak jantzi. Haiek dira, gorri horiek, inguratu nautenak. Arrebak zapatak eransten ditu, eta arin baino arinago irristatzen dira armairuan. Ikasi al duzu?, galdetzen dit.

Botikariak ezagutzen nau. Segituan ematen dizkit nahi ditudan pilulak. Somniferoak ere bai. Gainerakoan, umetatik hartzen ditut somniferoak. Etxean, denok hartzen ditugu somniferoak. Laurok. Beste batzuek fruta jaten duten moduan. Usuenik etxeetan fruta ematen diete hurrei, baina, gurean, somniferoak. Amari ez zitzaion kaskoan sartzen baten bat loak hartu ezinik egotea. Bere seme-alabek lo ez egitea. Hala, ezin gehiagoan ohitu zituen somniferoetara. Beraz, goizean isiltasun handia izaten zen etxean. Urteen poderioz, isiltasuna are handiagoa egin zen. Isiltasunak leku handia hartu zuen. Horregatik itzultzen naiz bakardadearen argudiora, eta arrebari esaten diot, eta berak segituan erabiltzen du nitaz idazteko, bakarrik sentitzen naizela. Eta etsita. Berak dosia handitzen du. Aurrena bakarrik nago. Gero triste. Hurrena etsita. Badakit berak nahi duela nik bukatzea. Zer ote dago etsipenaren ondoren? Hori da arrebak espero duena. Zaindari batek bere etxolan nola. Espero du ni etsipenetik beheko mailara igarotzea. Jaitsiera bat baldin bada. Bera kristalen atzean dago, zaintzen, aholkatzen, zelatan. Ez dago bestelako hitzik arreba XX definitzeko. Beraz, mintzo da ni idazlea nintzen garaiaz, bera baino askoz lehenago, bera noizbait idazlea izan dela ametituta. Hori ezin dut jakin, sekula ez dut jakingo. Bere etorkizunak ez nau gehiegi kezkatzen. Berari nire etorkizun eza interesatzen zaio. Nire etorkizun-gabezia. Maturità azterketak bikain gaingitu baditut ere. Gehienezko puntuazioarekin. Gehienezko puntuazioarekin eta bere nahigaberako.

Idazlea nintzela, nire ohar-liburuxkak, laugarren zenbakikoak, Idazlearen poesiak, melodiak, ipuinak zuen izenburu, eta nire izenaren azpian, ezkerrean, zuhaitz makur bat marraztu nuen, hilarri baten gisakoa, horretaz geroago ohartu nintzen, eta data, 1954. Zortzi urte nituen, handitan zer egingo nuen erabakirik neukan adina, eta arreba XXk segituan eman zien aditzera beste batzuei. Erabaki hura hartzen nuen bitartean, nire bizitzari amaiera ematekoa, sekula ez nintzen horrela mintzatuko, baina, nitaz idazten ari naizenez, ahalegina egiten dut esaldi egokiak erabiltzeko. Egokiak norentzat? Arreba salatariarentzat.

Arreba XXk esaten du kasketa hartu dudala. Ez dudala joan nahi gure amaren aldeko hiletamezara. Egia da, esan nuen ez nintzela joango. Nahi nuen bakean utz nintzaten. Baina berak tema kaskoan sartua zuen, madarikatua. Garrantzitsua zela. Baitezpadakoa zela. Semea nintzela. Hori ez dela egiten, seme bat amaren hiletetara ez joatea. Seme batek amaren hiletetan ez parte hartzea. Eta zergatik parte hartu behar nuen seme gisa, dena nire kontra bazegoen? Ez nuen nahi. Sentitzen nuen ez nuela joan behar. Nire izakia, nigan izakirik baldin badago, izakiak bagara, bera eta biok, matxinatu egiten zen amaren hiletetara joateko ideia hutsarekin. Ama bera arduratuko zen hiletaz, pentsatzen nuen; Bach-ek bezala, emaztea hil zitzaionean zera esan baitzien zerbitzariei, emazteari esateko hiletaz arduratu zedin. Bach bezala sentitzen nintzen. Zera nahi nuen, ama bera joatea bere hiletetara. Eta ez nintzan behartu ezer erabakitzerara. Arreba berriz tematzen da, esaten du joan behar dudala. Elizara. Amari deitzen diot, ez du erantzuten eta hiletetara joan behar dut, berak ez baitu erantzuten eta arreba XXk joateko agintzen baitit. Grisez jantzen naiz. Banoa. Neska-lagun alemaniar bat daukat. Bera ere grisez jantzita. Berdin jantzi gara. Neska-laguna ere tematzen da, hiletetara joan behar dudala. Parte hartu behar dudala. Ez dut inoren hiletetan parte hartu nahi. Baina tematzen badira, banoa. Eliza etxetik gertu dago. Plazan dago. Eliza itsusi eta esnob bat. Kafetegi baten ondoan. Hirurok, arreba, neba eta neska-laguna, denak berdin jantzita. Hilkutxa gure aurrean. Ez dakit hor barruan dagoena ama ote den ere, nirea eta berea, hainbeste tematu den arrebarena. Nork sartu du hor barruan? Arrebak. Nik ez dut ezer ikusi. Ez dakit ezer. Ez dakit zer gertatu den. Ez dakit nola gertatu den. Ez dakit elizan zergatik nagoen ere. Elizan nago amaren hiletak direla-eta. Ez dakit besterik. Loreak jarri dituzte hilkutxaren gainean. Barregarriak iruditzen zaizkit. Karameluak, marrubitoak, belarditxo loratu bat gure amaren burezurraren gainean. Kandela luzeak. Sugar ia geldiek, ia aizunek, su baltsamatuaren itxura ematen dute. Gero dena zamatzuten dute, loreekin batera, furgoi batean, eta badoaz, dena desegin zain. Horixe nahi baitzuen amak, nireak eta bereak, deseginda geratzea. Ez diot arrebari galdetu, baina berak gogoetak zelatatuko zizkion inondik ere, zehatz jakiteko zer nahi zuen egin zezaten bere gorpuarekin, ez baitzen berez desegingo.

Ama hil zenean, ez nuen bakardadea erabili gogoan, ordurako ohituta bainengoen, edo zailduta. Gogoetak ez dira ondoriozkoak. Senide bat hiltzen bada, gero norbera bakarrik sentitzen baita. Hori ondoriozkoa litzateke. Ez niretzat. Egun hartan bakardadearen gogoeta ez zen inola ere azaleratu. Beharbada lagun egin bainion zur distiratsuan itxita zegoela, agortu egin zitzaidan betidanik bildurik nindukan bakardade-sentsazioa. Beharbada, biok lehen

lerroan geundenez, hain ginen hurbil gure amarengandik, non arrebak berak ere ez baitzuen hauteman abandonurik edo atzerakorik ez zuen ezer. Sarritan geroxeago jabetzen gara. Guztiaz jabetzen gara geroxeago. Oinazea atzerapenez etortzen da beti. Batzuetan lehenago, iragarri egiten delako. Oinazeak gogoko du iragartzea. Gauean zure bila etorrita, burua eta urdaila eta zainak zulatuz ondoezekin, zauriekin, iluna den zerbait etortzen zaigu bisitan. Baina oraindik ez dakizu zer den.

Baina ez dugu hori hizpide. Arreba adi-adi egon zen elizan nire portaerari begira. Eta iruditu zitzaion oso ondo portatu nintzela. Igartzen nion, bere begietako eite atseginez betean.

Baina ez dugu hori hizpide. Hori dagoeneko herrestan eramana da. Nebak eta arrebak bizirik diraute oraindik. Neba lizentziatu egin da. Cum laude. Garrantzitsua da lizentziatzea, egin zuen zinkurin arrebak. Eta orain amesgaiztoa dago, amesgaizto benazko bakarra, bizitzearena. Bizitzearen garrantzia. Eta bizitzen gailurtzeko garrantzia. Edo, besterik ez bada ere, gailurtzekoa. Azken batean, zerbait bilakatzekoa. Garena baino zerbait gehiago edo gutxiago. Arrebari dagokionez, pentsatu beharrik ez dago. Berak dena baino askoz eta askoz gehiago izatera iritsi nahi du. Berak gailurtu nahi du bere bizitzaren kontura. Ohartuta nago berak nahi duela. Borondatea duela. Ez dakit zer nahi duen. Baina nola behin eta berriz esaten baitit gailurtu behar dudala, nik uste gailurtzea dela berak bere buruarentzat nahi duena. Beraz, nik ere gailurtzeko beharra daukat. Lehenik eta behin, orain lizentziaduna naizela, zera pentsatzen dut, zer egin behar dut? Zer da egin behar dudana kontu garrantzitsua? Pilulak hartzen ditut. Orain are indartsuagoa den somnifero batera jarrita nago. Errezeta mordo bat dut. Medikuari eskatu diot hainbat errezeta egiteko, horrela ez naiz geratuko batere gabe. Somniferorik gabe. Hori da benetan interesatzen zaidan kontu bakarra. Orain lizentziaduna naizela. Ez dakit zer egin. Baina badakit. Badakit lo egin nahi dudala kosta ahala kosta. Amak bezalaxe pentsatzen dut. Nola liteke seme-alabak gau osoan esna egotea. Lo egin behar dute. Arrazoi duzu, ama, esaten diot, lo egin beharra daukat. Roipnol da nire somniferoaren izena. Ondo lo egin, esaten dit amak. Lo egin al duzu?, esaten dit arrebak. Berak modu naturalean egiten du lo hamar orduz, eta hamabi ere bai, somniferorik gabe. Somniferoaren dosia nire gorputzetik berera hedatzen da, nik uste. Ez da posible hain denbora luzez lo egitea pilularik gabe. Berriz tematzen da lan egin beharko nukeela. Garrantzitsua da gizon batek lan egitea. Izugarria da, nik uste. Lan egin behar dut. Saiatzen naiz arrebarantz garrantzitsua dena egiten. Lan bila hasten naiz. Goizez, berandu. Beti daramat Roipnola poltsikoan. Lagun egiten dit. Enplegatzaile izan daitezkeenekin hitz egin bidenabar. Bulegoetan, banketxeetan. Cum laude lizentziaduna naiz,

baina itxuraz horrek ez du axola handirik. Arrebari esaten diot. Arrebak esaten dit egonarri egoteko. Bat-batean ohartzen naiz berak garrantzitsutzat jotzen zuena dagoeneko ez dela horrela. Berarentzat. Garrantzia galtzen ari da. Orain neronek begiratzen diot. Zelatatzen dut. Bi zorigaiztoko gara, nik uste. Bera eta biok. Kontu garrantzitsuak jada horrelakoak ez badira, zer da garrantzitsua? Nekatuegi nago erantzuteko. Lehengo egunean adia galdurik nengoen. Hutsik zegoen plaza batean horma baten kontra jo nuen Mini Morris-arekin. Zorabiatuta geratu nintzen. Zauri txiki bat buruan. Arreba XX iritsi zenean, galdetu zidan ea zer gertatu zen, nolatan egin nuen talka, baina nik ez nekien, talka egin nuen eta kito. Ez nuen minik hartu. Ederki nengoen. Egun hartatik aurrera ohartu nintzen ez nuela oinaze fisikorik sentitzen. Sorgor bihurtua nintzen oinazearekiko. Hura zen gorputzak utzi egin banindu bezala. Eta bakarrik gelditua nintzen. Bilgarririk gabe. Baina jantzirik.

Baina hori lehenago ere gertatua zen gure etxean. Gure amona bat erre egin zen kafe irakinarekin eta ez zen ezertaz ohartu. Sorgorra zen erredurekiko. Gure amak, aurrean baitzegoen, erotuta zegoela pentsatu zuen. Amona ezer gertatu izan ez balitz bezala baitzegoen, mintzatzen, txantxetan. Baina ez al duzu minik?, galdetzen zuen gure amak. Mina, non?, erantzuten zuen hark. Orduan, gure etxean ez bagara ohartzen erretzen ari garela ere, enborrak tximinian nola, horrek zera besterik ez du esan nahi, gorputzak utzi egiten gaituela, eta agian espirituak garela, ez dagoela ondo jakiterik noiz utzi diogun gu geu izateari eta bihurtu garen beste zerbait. Bilakatu garen auskalo zer. Aurrena bere neba nintzen, salatariarena, izen bat nuen, identitate zehatz bat, orain beste zerbait bihurtu naiz. Jabetzen nintzen gorputzak ez zituela nire gogoetak, nire aginduak betetzen. Nire urratsak gero eta astunagoak ziren. Geldirik egon beharko banu bezala. Kanpoko itxura, barka egidazue, baina ez nago seguru barrukorik dagoen, bere horretan zegoen beti, itxuraz. Dena zen itxura. Ni neroni ere itxuraz sentitzen nintzen. Zuek nik baino hobeto ulertuko duzue zer esan nahi duen. Eztabaida zahar bat dago, jakinaren gainean egongo zarete, izatearen eta itxuratzearen artean. Izatea seguruagoa iruditzen zait. Itxuratzea, egokiagoa desagertzeko. Eta ni sentitzen nintzen egoki desagertzeko. Alegia, bera, nire gorputza. Arrebak ere sumatua zuen desagertzeko nuen prestasun hori. Artean zelatatzen baininduen, gogoz bestera arduratzen zen. Jendeak, ia inork, ez daki besteez arduratzen, adeitasunez, apaltasunez eta harrokeriarik gabe. Uste du badakiela. Arrebak uste zuen bazekiela. Gizatasuna ezagutzen zuela. Erabat ernegarria zitzaidan. Ez zait gustatzen badakien jendea. Edo badakiela arrandiatzen duena. Jakintzak ez daki. Baina hori gutxi ulertzen dute.

Oinaze fisikorik gabe, handiagotu behar izan nuen Roipnolaren dosia. Nire gorputza, oinazearekiko sorgor, aski nagi bihurtua baitzen somniferoen aurrean. Sekula ez ziren aski. Oinazerik gabe, ez zuen lo egiteko gogorik. Baina nik, XXren nebak, lo egiteko gogo handia, izugarria nuen. Loarekiko grina nuen. Erabateko gelditasuneko hamabi ordu horiekiko. Mundutik erabat lekukurik egoteko hamabi ordu horiekiko. Hamabi orduko hilobi leun eta gozo askoa. Nire gorputzak ez du ametsik egiten. Ez dago.

Hogeita bost urte ditut. Egin nuen arrebaren ustez garrantzitsua zen hura. Baina zortzi urte nituenean poeta eta idazlea nintzen. Eta inork ez zidan esan idaztea garrantzitsua zenik. Harrezkero zera besterik ez dut egin, arrebaren ustez garrantzitsuak ziren gauzak, ikasi, lizentziatu, bizitzan gailurtu. Kanean dabilen jendeari begiratzen diot, lana lortzeko norbaitekin mintzatzera joan behar nukeen bitartean. Neronen buruari esaten diot horietako bakoitza gailurtzen ari dela bizitzan...

Nik itzalei baizik ez diet jarraitzen, gaztea naiz oraindik, poltsikoan somniferoa daramat, beraz ederkitxo nago, ez dut beste ezeren beharrik, zerbait garrantzitsua egiteko behar dena kenduta. Soka-mutur hori, bestearekin lotu behar dena, bizitzan benetan garrantzitsua den zerbait egiteko, bizitzan gailurtzeko. Hala dio arreba XXk. Eta haizatu du neronen buruaz beste egin dudala. Hori ez diot barkatzen. Lizentziatu nintzen, amaren hiletetara joan nintzen, gogo txarrez, gogoz kontra, gailurtzeko inolako antsiarik gabe. Batere antsiarik gabe. Ezta sufritzeko ere. Oinazerik gabe. Areago, bozkario hutsal batez, zeinari zoriona deituko niokeen ia.

## Gela aseptikoa

Behin Ingeborg eta biok zahartzaroz mintzo ginen, berak irribarre egiten zuen hitz horren aurrean, baina hitz hori ez zegoen ez bihotzez ez benazko irribarrez lagundurik. Irudikatzen nuen heriorik gabeko bizitza-luzera bat, landetxe bat, pareta bat, deskribatzen nion kanpoko arkitektura eta soka batez lotzen nuen. Eta lorategi bat pareten artean eta berriz esaten nion gu biok. Itsuski sinetsirik nengoen. Egia bihurtzen ez den horretan izaten den sineste osoaz. Irudikatzen genituen bisitak, gonbidatuak, eta mintzatzen ginen gonbidatuen izenez, gin-tonic bat edan bidenabar. Bera zur horaileko Biedermeier sofán eserita —marrekiko tapizeria, Biedermeier mahai borobila eta loreontzia adi zeudela ematen zuen—. Hala ere, ez nengoen erabat sinetsita bere parte-hartzeaz, adeitsua zen eta arretagabe samarra. «Ez al duzu nahi elkarrekin bizitzera joatea zahartutakoan?». Tematzen nintzen. Orduan Ingeborgek (niri atsegin emateko, nik uste) baiezkua ematen zuen. Baina egiten zuen etorkizunik aurreikusiko ez balu bezala. Nik ez nuen zahartzaroa hizpide etorkizun gisa, baizik eta bihozkada, beldur baten gisa...

Zahartzaroa, esan zuen, beldurgarria da. Baina dena da beldurgarria, esaten nion. Hala-moduzko bozkario batekin. Sinetsarazi nahi nion dena dela beldurgarria benetan (garai hartan gure bizitzak ez zeuden batere gaizki) eta ez txantxetan. Orduan zoriona zerien bere begiei, eta urteak joan ziren. Labur. Egunero joaten nintzen Sant'Eugeniora, erredura handietako unitatera. Bi aldiz barrendu nintzen aseptiko behar zuen gela batean.



## Enkontru bat Bronxen

Jatetxe batean, Oliver Saksen etxetik ez urrun. Aurrena, bisita bat bere etxe hotz-hotzean. Berak galanki sufritzen du beroarekin. Berak gorroto du beroa. Edo beharbada, ez dakizkidan arrazoi kliniko eta mentalengatik, beroak itolarria eragiten dio, besterik gabe. Nolabait ere, zirrara egin dit ikusteak zenbateko higuina dion beroari. Beharbada nik, hotza, klima nordikoa, zeru nordikoa, izotza, elurra, hotzaroa maite arren, galanki sufritzen baitut hotzarekin. Estaltzen naiz egunez, estaltzen naiz lotarakoan, eskularruekin idazten nuen makinaz, hatzak agerian. Beti nago hotz, hotzaroak aldean ufutzen dit. Behin Sacks hona etorri zen neguan. Leihoak ireki zituen. Terraza aldera egin zuen. Etxean gelditu nintzen berokia, bufanda eta eskularruak jantzita. Hotz dauzkat eskuak. Lepoa. Laburbilduz, ausarkeriaz esango nuke dudana hotza barnekoa dela, hitz izugarria, baina glissons. Barneko hotza. Hotzaroa barnean. Oliver beti dago bero. Berak gorroto du beroa. Ez dut uste osagai fisiko hutsa denik. Nik baino gehiago pisatzen du. Duela hilabete gutxi arte berrogeita hamar kilo baino gutxiago pisatzen nuen. Baina beroa gorroto zuten argalak ezagutu ditut. Beraz, kontua ez da soilik hezurdura nola dagoen eginda. Ezta odol-kontua ere. Ez dut uste sentimendu-kontua denik ere. Nireak aski hotzak izan daitezke. Beroa sutsuki desiratuta ere. Baina ez gehitxo. Jakina, zer bero-mota den. Behin, udan, Salonikan geundela, Grezian, titularrak izan ziren egunkarietan, jendea beroak jota hiltzen ari zen. Sumatzen nuen zerbait arraroa gertatzen ari zela, eta ni ere bero nengoen. Baina ez nengoen ahiturik. Filipporen hilobiaren bila gindoazela izan zen. Itxita zegoen. Baina barrentzen utzi ziguten. Halako bero-sapa egiten duenean, estali egiten naiz. Artean Grezian geundela, Peloponeson, moja batek nahasi egin ninduen moja batekin. Zuriz jantzita nengoen, jantzi luzez, buruan lihozko oihal bat, bizkarrean behera jaisten zena.

Beraz, jatetxean geunden Oliverrekin. Arrainak zeuden akuario batean. Oliver eta Roberto hizketan ari dira. Oliverrek xerra handi-handi bat eskatu du. Gure ondoan, mahai luze bat. Gizon bat mahaiburuan. Inguruan, denak emakumeak. Parpailez jantzita, bitxiekin, azazkalak lakaturik, azazkal zoragarriak benetan. Jantzi luzeak, kortse estuak rayonez eta zetaz brodatuak, dirdaitsuak, arrosa, malba, hori, zuri. Ezkonberriak ziruditen denek. Eskumuturrak mehe. Begiak distiratsu. Gizona, nagusi. Beltz bat. Dotorea. Ia hotz bere emazteengandik. Hari begira nengoen. Eta akuarioari begira nengoen. Arrain bat ikusten dut, ez dakit zein arrain, baina dagoeneko laguna dut. Handi samarra, begi handiak, beti ibilbide bera, akuario erdia. Ematen du nire behakoari erantzuten diola. Iruditu zitzaidan, argi eta garbi, ulertzen ninduela.

Nik hitz egiten nion. Isilik. Txeraz. Berak badaki hil behar duela. Berak badaki ez duela ezer besterik lortuko bizitzan. Eta jatetxeko bezeroei begira dago. Istant batez pentsatzen dut bere patua eta nirea ez direla desberdinak. Biok gaude begira. Abantaila bat izango dut, baina; etorkizun bat oraindik, denbora pixka bat nire aurrean. Hil nazaten baino lehen. Arraina hain da bizkorra. Maitasuna darie bere begiei, ez nabil gehiegizka. Bezeroek akuario aldera egiten dute, hatzarekin seinalatzen dute zein arrain jan nahi duten. Zein arrain zerbitzatuko duten mahaian. Arraina mugitzen da. Beti ibilbide bera. Zer besterik egin behar du. Bertatik bertara begiratzera joaten dira. Fresko dagoela. Bizirik dago-eta. Bezero guztiak ziur egon daitezke arraina fresko dagoela. Edozeinek ikusteko modukoa da. Eta haiek, arrainek, ikuskatzen dute. Etsita, axolagabe, ez nekien. Hala ere, halako senidetasun bat sentitu nuen haien eta nire artean, batez ere batekin. Ondo gogoan dut. Gogoan dut bere forma. Bere behakoa. Ezin dut salbatu. Jatetxetik irteten naiz, agurtu ondoren. Txerazko hitzen bat ahoskatzen dut. Ezpainak mugitzen ditut. Berak egiten duen bezala. Eta adio.

## Tropikoak

Txikia nintzela gustuko nuen arrebarekin identifikatzea, zeina ni baino urte batzuk zaharragoa eta beste aita batena zen; gero zazpi urte nituela aitarekin joan nintzen, diplomatikoa baitzen, aurrena Brasiler, gero Erdialdeko Amerikara. Ez nuen arreba luzaroan ikusi. Baina Europara itzultzen nintzenean, nire amarekin joaten nintzaion bisitan, bere ama ere bai baitzen, amona baten etxera, bera han bizi baitzen. Eta ikusten nuen hezibide oneko neskato bat, bostekoa luzatuz eta burua makurtuz agurtzen ninduen; sumatzen nuen bere behakoa pixka bat gaitzotua, ikusia nuen azken aldi bako bako, berak hamar eta nik sei urte nituela.

Gure enkontruak laburrak izan ziren beti, eta, egia esan, sekula ez dugu astirik izan elkarren ezaguera egiteko. Bigarren aldiz itzuli nintzenean, ezagutuko ez banindu bezala agurtu ninduen. Aski agur hezibidekoa. Txaleteko korridorean izan zen; atzealdean kristalezko atea zabalik zegoen eta palmondoak, magnolia eta aintzira ikusten ziren. Nik ere hezibidez agurtu nuen, kikiltzen ninduen, eta, bostekoa luzatu zidanean, estutu besterik ezin izan nuen egin, ahalegin pixka bat eginda besarkatu egingo nuen, baina. Bizpahiru pasiera egin genituen aintziraren inguruan, eta argazkiak egin zizkiguten parterre baten eta magnoliaren ondoan. Bera ni baino puska altuagoa. Eta beti behako hura, begi-bazterraz eginikoa, maltzur samarra. llehoria zen, txirikorda luzeekin, begiak argi baina ez nireak bezain urdin argi, bereak ziren gris, goroldio, berde. Deseroso zegoen nirekin eta beharbada aztertu egiten ninduen, niri begira zegoen. Ni ez nengoen gustura berarekin, nire amaren alabarekin. Esango nuke nire bizitza, nire bizi-maila, berea baino hobea zela; guk zerbitzari asko genituen, berak baino jantzi hobeak nituen, eta berak ikastetxe batean eman behar zituen urteak. Ez dakit zergatik esan dudan ikastetxe batean eman behar zituela urteak, baina amari aditzen nion arrebak ez zuela gurekin etortzerik, osasunez makal zegoelako. Arreba ez zegoen batere makal osasunez, neskato gihartsua zen, bortitza, gaitzik gabea, malenkoniarik ere ez zuena. Tamalez nik pairatu ohi nuena. Ez dakit desira nuen gurekin etor zedin; jaio ginenean ere aurkariak ginen. Bere aita oso atsegina zen nirekin, bi aldiz ikusi nuen; iruditu zitzaidan arreba eta bere aita arrotzak nituela ia, begi berdina zituzten, baina ausardiaz esango nuke bihotz desberdinekoak zirela. Aitak betidanik ezagutuko banindu bezala agurtu ninduen lehenbiziko aldiz, nabarmena zen gustuko ninduela, galdera asko egin zizkidan Amerikari buruz eta handitan egin nahi nuenari buruz. Elkarrizketa mamitsua izan genuen, bi arrotz izanik, ez baitut ahaidetasunik batere arrebaren aitarekin; eta, hala ere, jaun hura nire ahaidea izan zitekeen, bere gutunak jasotzen nituen

Brasilen, gutun-azalean Pro Juventute-ren zigiluak zeudela. Arrebak eta biok sekula ez dugu asko hitz egin, ez dut haren ezaguera egin. Uda bat pasa genuen elkarrekin, itsasaldean. Berari eta bioi kalte egin zigun eguzkiak. Beharbada horrek batuko gintuen. Urtero hiru aste ematen zituen bere aita jaunarekin hotel handietan. Urtea ikastetxe batean ematen zuen. Zortzi urtetik hamazazpi urte eta hiru hilabetera arte, hainbat ikastetxetan egon zen barneko ikasle. Brasilen eta gero Erdialdeko Amerikan nengoenean, ahalegina egiten nuen arreba ikastetxe horietan irudikatzeke, eta ateratzen nuen ondorioa zen gustura zegoela, eta ez zuela malenkoniarik. Ez gintuen behar. Niri ez zidan sekula idatzi, nire amari oso bakanka, egoerak hartaratutako gutunak, arinak eta ez oso adeitsuak. Hamabost urte zituela ikusi nuen berriz; Bausler Institutetik irten berria zen, Appenzell-eko ikastetxe batetik (sekula ez naiz han izan eta joateko asmorik ere ez dut). Neska gazte liraina zen ordurako, txirikordarik gabea, motots batekin. Gonbidatu genuen gurekin bizitzera, Erroman, beste ikastetxe batean sartu aurretik, eta elkarrekin joaten ginen Atzerritarren igerilekura. Bera hasia zen denak limurtzen.

Eginahal betean ekin zion galdutako denbora berreskuratzeari. Ikastetxera itzuli zen. Ikastetxetik irten zen. Ikastetxera itzuli zen. Azkenean, hamazazpi urte bete zituen. Azkenekoz, Zug-eko ikastetxe batera bidali zuten, Zurich-etik ordu erdira, Haushalt eskola batera. Ez zuen ikasi janaria maneatzeko, ez zuen ezer ikasi; hiru hilabete besterik ez zuen eman kanpoan. Etxera itzuli zen, berea ez zen etxera, berak sekula ez baitzuen etxerik izan. Ahalegindu ginen berarekin txeratsuak izaten; nire buruari galdetzen nion zer ote zen txera berarentzat; nire ama musu ematen saiatu orduko aldendu egiten zen; lo asko egiten zuen, eta batzuetan barrezka entzun nuen bere gelan, orduan genuen Sardiniako neskame batekin zegoela. Zeina ordurako saiatua zen niri laztan egiten. Erlatiboki luze samarra izan zen aldi hartan ere ez genuen lortu elkarren ezaguera egitea, gu ez bezalakoak zen. Egun batean, bere aitaren idazkariaren gutun bat jaso zuen. Esaten zion aita gaixorik zegoela. Zurichera joateko. Nire amak maleta prestatu zion, eta beharbada aipatuko zuen aita hil zitekeela, traje beltz bat tolestu bidenabar; eta arreba sutan jarri, eta esan zuen: traje gorria besterik ez dut nahi. Esanez bezala gure modukoak direnek ez dutela kanpoko seinalerik eramaten, bera ez dela inola ere beltzez jantziko aitaren hiletetarako. Nire amak errukiz begiratzen zion. Nik gorroto nituen eztabaidak —nire aitak bezala—. Baina hileta batera ilun jantzita joan behar da. Geroago jakin nuen ez zela janzkiagatik izan, baina inork ez zuen tartekatu behar bera eta aitaren heriotzaren artean.

Gero alde egin zuen. Gure etxean utzi zituen bere gutunak. Ez nekien arrebaordeak idazten zuenik. Oharrak aurkitu nituen ikastetxeaz, Françoiserekiko zituen sentimenduez,

Françoiserekiko zuen maiteminaz; maitemindurik irudikatuko nuen azken pertsona da bera eta hori irriemangarria zait. Haurtzaroko egunkari bat ere aurkitu nuen, amonarekin bizi zen garaikoa, non aipatzen zuen nire zoriona, nire bizitzan zegoen luxua; herrialde tropikalez eta Erdialdeko Amerikaz mintzo zen, gaur egun elkar akabatzen ari diren horietaz, paradisu bat balitz bezala; eta herrialde haietako landaredia koroa bat nola pausatzen zen etxe aurreko aintziraren gainean, eta berak neba ikusten zuen landareekin, zeruarekin jolasten. Eta jolasteaz aspertu, eta zerbitzariak bila joaten zitzaizkionean, bazeukan esatea: «j'en ai assez de la beauté». Berak amesten zuen, amets egiten zuen neba zorionekoarekin, ama zorionekoarekin, zeinak gorrotatu beharrean maitatu egiten zuen; eta agian, horregatik, berriz ikusi ninduenean, printze txiki bat ikusi zuen nigan, edo Tropikoetako dignatario bat, eta burua makurtu zuen begirunearen eta debozioaren seinale gisa.

# Katua

Besteei beha egotea beti da interesgarria. Trenean, aireportuetan, biltzarretan, ilaran gaudela, beste batekin mahai baten bueltan eserita egon bitartean; azken beltzean, izakiak ibili dabiltzan egokiera guztietan. Bidaiatzen ez dutenei edo bakar-bakarrik daudenei ere bururatuko zaie ordu erdiz kalera ateratzea. Eta katu bat ikustea, izugarri bildurik eta adi-adi harrapakinari zelatan. Edo atzaparketan. Beharbada izango da tximeleta bat, hosto bat, paper-puska bat, intsektu bat. Jomuga erdietsia duenean, bat-batean katuak arreta galtzen du. Etologoek Übersprung esaten diote higidura horri. Kolpe hilgarria baino lehentxeago izaten da. Ikusten dugu katua mugitzen eta harrapakina lekuz aldatzen, luma bat nola. Azken higidurak. Tximeleta dantzan ari da bere agonian. Dar-dar egiten du oharkabean, katuaren arreta pizteko adina. Eta katuak arreta galtzen du. Urrundu egiten da. Patxadaz norabidea aldatzen du. Norabide mentala aldatzen du. Une hil baten gisakoa da. Estasia. Badirudi ezer ez zaiola interesatzen. Badirudi ahazturik dauzkala hegal dardartiak, lipar batzuk lehentxeago ardura osoa hartua ziotenak. Lehen bere buruaz jabeturik zegoena, ideia baten, gogoeta baten gisa. Orain besteratzen da. Beste alde batera begiratzen du. Muturra igurzten du hankatxoarekin. Belarriaren atzean egiten du hazka hankatxoarekin, burua makurtuz. Makina bat zeregin ditu betetzeko. Ez dute batere zerikusirik aurrekoarekin. Ekintzarekin. Katua beste norabait begira dago. Beste nonbait dago. Higidura estrategikoa da. Doitasun-mekanismo baten parte da. Horretan guztian dagoen zerbaitek Kleist-en ipuineko txotxongiloak ekartzen ditu gogora. Erasoaren doitasuna, arintasuna eta bizkortasuna. Axolagabetasuna, distantzia. Beharbada tximeletak eta hostoak ere izango dute Übersprung une bera. Katuak bezala. Agoniatik adia galtzen, besteratu egiten dira beren heriotik. Herioaren ideiatik. Horixe egiten du katuak. Bera ere agoniatik besteratzen da. Igarri egin baitio. Ez dakigu zergatik gertatzen den, katuak behakoa beste norabait jiratzea. Berak badaki. Beharbada, delectatio morosa izango da, Übersprung hori. Biktimarekiko loturaz askatzeko era malenkoniatsua. Übersprung: guri ere badagokigun hitza. Beste norabait jiratzea da, beste zerbaitetan hastea, axolagabetasunaren keinua adieraztea, adio bat nola. Gaiaren dibagazioa, hitz bati iskintxo egitea eta, aldi berean, hitzen ehiza, haietaz askatzea: idazteko beste hainbat modu mental dira. Bada delectatio morosari esker idazten duenik. Thomas de Quinceyk, esaterako, «dark frenzy of horror» aipatu zuen behin, lazturaren eldarnio iluna.

## Izenak

«Ez naiz gauza Auschwitz berriz bisitatzeko», esan zuen Basiak, neskatxa poloniarrek. Korridorean geldituko da, banku batean eserita zain. Sarreratik gertu. Bere ahotsaren tonua inpersonala, atsegina eta hotza da. Ez dio Anjari lagundu nahi Arbeit macht frei inskripzioa duen burdin langatik harantz. Bankuan geldituko da eserita itxiera arte. Lager-aren planoan eman zion Anjari. Eta aterki bat.

Egun hartan, negua zen, ia desenkusaz eta adeitasunagatik, beste aldera laguntzeko proposatu zion Anjari. Beste esparrura. Birkenaura. Krakoviatik egindako ibilbidean, Auschwitzera lagundutako atzerritar batzuk aipatu ditu Basiak. Frech ziren. Harroputzak guztiekin. Gidariarekin. Motelegi gidatzen zuen. Oporretan zeuden. Programan, Auschwitzeko txangoa. Txistek kontatzen zituzten. Ankerki egiten zuten barre. Basiak leihatila ireki zuen barrea kanpora uxatu nahian. Auschwitz begiztatu orduko, goibel-itxura egin zuten bat-batean. Dolua begitarteetan barreiatu. Oinazearen erakuskeria. Aise adierazi zuten, neurritz gain, damu osoa. Damu oso hotsandikoa, proportzio hotsandiko batean behar dena, Auschwitz bisitatzeko. Denek joan beharreko lekuan, esan zuten batera. Urrats arinez iritsi ziren Heriotzaren Harresira. Loreak utzi zituzten.

Basia eta Anja Birkenauko dorrera igo ziren. Urrutian, tren-estaziotik harantz, errausketalabeen hondakinak antzematen dira. Atzera egitean Ssek ez zuten lortu erabat suntsitzea. Gidaliburu laburrean irakur daitekeenez, ikuspegi bikaina dago dorretik, deuseztatze-esparrurik handienarena.

Leihoak trenbideei begira daude. Anjak zerbait esan nahi lioke Basiari. Bere egonarri atseginari. Bere behakoaren zorrotasun ostenduari. Basiak eragotzi egiten du itxuraz. Adeitasun prestuz erakusten dizkio barrakoiak. Logelak. Basia sartzen da aurrena. Ozen irakurtzen ditu habeetako inskripzioak. Ordnung. Sauberkeit. Ordena, garbitasuna. Ehrlichkeit am längsten währt. Azkenean zintzoak beti du sari. Basia aldendurik dago. Zain, Anjak ingurura begira dezan. Behaketa noiz bukatuko.

Kanpora egin dute. Elurbustiak paisaia estaltzen zuen. Jada apenas dagoen bisitaririk. Bi emakumeak elkarren ondoan dabilta. Orain Anjak ez du mintzatzeko ahaleginik egiten. Ahalegintzen da gogoetaren antzeko zerbait egiten. Izotz-pusketen moduko gogoetak.

«Aditu», dio Basiak. Soinu zoli bat entzuten zen ia nahasirik eta ahuldurik. Basiak eskua luzatu zuen zuhaitzak erakusteko. Mutu eta hutsal ziruditenak. «Es ist eine Lerche», esan zuen Basiak. Anjak, ez baitzekien ondo alemanez, Leiche ulertu zuen, hilotz. Doinu bat kantuka ari den hilotz bat. Istant batez sinesgarria iruditu zitzaion. Baliteke hildakoek argitu nahi ez duten zerbait egotea. Horregatik antzeratzen dute txorien soinua. Eta ahots bat ematen zuen, itzalik gabeko hondamenean. Hiztegian bilatu zuen, hegatzabala zen. Baina ba al zegoen hegatzabalik neguan? Eta hegatzabala izan zen, gutxi-asko, Birkenau bisitatzean Basiak ahoskatu zuen hitz bakarra.

Basia banku batean eserita dago. Itxoiten. Agian Anjak ez zion laguntzeko eskatu behar. Basiaren ezezkoaren ondoren, lasaitua hartu zuen. Eskertu egin zion. Aski zaio lagun poloniarra hor egotea. Banku batean eserita itxoiten, beroki ilunean bilduta, txano eta aire malenkoniatsu eta egonarritsuarekin. Zer darabil Basiak buruan? Zenbat pertsonari lagundu dio dagoeneko? Eta, bere irudimenean, zenbat gehiagori laguntzen ote dio Auschwitz bisitatzen? Baliteke, gaeuz, Basiak beren hazpegiak ikustea gelatik irteten. Argazkietarantz jotzen, atzetik doazkion bisaia. Seigarren zenbakiko sailekoak. Iruditzen zitzaion aitona-amonen gutunak artean iristen zirela. Ondo zeuden, lanean ari ziren eta janaria ona zen. Ondo zeuden beti, Auschwitzen eta gero Birkenaun. Baita banandu zituztenean ere. Baita itzuli ez zirenean ere. Gutun berberak ziren beti. Bere baitan daude gutun-orri horiek, esan gabeko, zentsuratutako hitzen hesi mehe bat. Isiltasuna agerikoa zen. Baita itxuraz hutsalak ziren esaldien soiltasuna eta argitasuna ere.

Ez da gidaria, Basia. Pertsona adeitsu bat besterik ez da. Nekeagatik eta egonarri atabikoagatik. Eta esan zuen atariraino lagunduko ziola Anjari. Harantzago, ez.

Anja bakarrik dago. Finkatutako ibilbideari jarraitu dio. Zeharkatu du Arbeit macht frei inskripzioa duen burdin langa. Inguruko paisaia bare dago. Neguko berde margul bat. Bisitariak barreiatzen ari dira. Talde txiki sakabanatuak. Batzuek argazkiak egiten dituzte. Anja barrakoi



batean barrendu da, bi errausketa-labe daude bertan. Aurrean familia bat dago posatzen. Oroitzapeneko argazkia. Sarkina dagoela ohartu orduko, utzi egin diote posatzeari.

Argazkiak ezkututzen saiatzen ziren deportatuei zera esaten zieten zaindariak: «Nolanahi ere, ezer gutxirako balio dizuete argazkiek eta dokumentuek». Olga Lengyelek, ikuskapenerako larrugorri zegoela, etxekoen argazkia ezkutatzea lortu zuen, oin azpian zituen jantzien artean irristatzen utziz. Etxekoek ez zuten bere degradazioaren aurrean egon behar. Beste batzuek lortu zuten kutunen argazkiak txiki-txiki egin, eta mingain azpian jartzea.

Anjak jarraitu du bisitarekin, erakusketa iraunkorretarantz jo du. Bere aurrean, emakume bat, ile horaila bizkarrean aske. Makila zuri bat. Ezti-koloreko labrador bat. Anjak orpoz orpo jarraitu dio. Itsua du orain gidari. Baita txakurra ere. Txakurrak ere badaki zenbat sarraski egin zituzten animaliekin. Otzana eta ernea da. Bere jabea gaztea da, irmo dabil. Anja zalantzaz doa. Orain makila zuriko neska du buru-euskarri. Kioskoaren aurrean gelditu, eta postal pare bat erosi ditu. Anjak antzera egin du. Itsuak egiten duen guztia egin nahi du. Txakurra bere oinetan du etzanik. Belarriak zut. Inguruan aditzen dituen hitzak usnatzen. Bakan, ia denek alde egin dute. Elur-lohian arrastoak gelditzen ziren. Orain lagun egiten dio emakumeari, hurbil egon nahi du. Elkarrekin sartu dira sailetan. Anjak atzetik jarraitu besterik ez du egiten. Badirudi itsuak badakiela zer dagoen erakusleihen atzean. Anjari iruditu zaio itsuak ikusi egiten duela. Bere begiek objektu oro arakutzen zuten. Ukituko balitu bezala. Objektuek bere behakoa aurkitzen zuten. Agian berak ikus zitzan nahi zuten. Kapelen, zapaten eta aparatu ortopedikoen erakusketaren aurrean, itsuak begiz destatzen zuen. Ituak balira bezala. Agian hautematen zuen zer zegoen erakusgai eta irudikatu egiten zuen. Ez daki ezer berari buruz, Anjak. Baina iruditzen zitzaion itsuak gogo bisual zorrotzagoa zuela. Degesch enpresaren Zyklon B-ren laten aurrean berehala igaro zen harantz joz. Izenak zituzten maleten erakusleihen aurrean gelditu zen. Izen ikusgarriak eta zehatz-zehatzak. Ia askatu egiten dira, hartzailerik gabeko txartelak izateko. Marie Kafka, Klara Goldstein, Rote Kreuz Gasse, Peter Eisler -Kind. Mutikoa. 20-III-1942 eta 6446 zenbakia, bi aldiz idatzita tamaina handian. Galdutako objektuak. Iragaitzazko izenak, eskutik helduta. Izkiriaturik daudelako existitzen diren izenak. Eta izkiriaturik zorrotz daude guri begira.

Esaten dutenez, Pragako mutiko batek, gurasoekin batera atxilotzera joan zirenean, bisita-txartel bat besterik ez zuen hartu, presaturik. Bere existentziaren lekuko bakarra. Emakume gaztea eta txakurra gelditu egin dira bihotz-formako poltsikoak dituen amantaltxo baten aurrean, kaxa batean baitago erakusgai. Anjari iruditzen zitzaion itsuaren begiak doitasunezko tresna bihurtuak zirela. Gero itsuak Anjarengana jiratu zuen burua, eta Anja urrundu egin zen oharkabean joateko.

Anjaren eta emakumearen begiek atxilotuen argazkiei erreparatu diete. Hiru jarrera erritualetan. Soslaiz, aurrez aurre eta buruan txano bat dutela. Emakumea aurpegiak dituen paretaren aurrean gelditu da. Miatu egin ditu. Ez zehazki, baina. Behakoa beste alde batera biratu da. Agian ikasle bat izango da. Labradorra du konpainia bakarra. Motxila bat bizkarrean. Sumatu du ilunabartzen hasia dela. Anja orpoz orpo dabilkiola. Baina ez ikusiarena egin du. Esparruko azken sailerantz jo du. Hamaikagarren saila. Loreak makurtu dira Heriotzaren Harresiaren aurrean. Gaez izoztu egiten dira.

Ixteko ordua da. Anjak agur egin zion makila zuriko emakumeari. Eta berak irribarre egin zuen. Lasai urruntzen ikusi zuen. Txakurra aldamenen. Berehala sumatu zuen bere hutsunea, erabat ezkutatu zenean.

Basia bankuan eserita zegoen artean. Egonarriz. Zerbait behar ote zuen galdetu zion. Basiak ez zuen ezer behar. Bankuan eserita zegoen horretarako, itxoiteko, ez beste ezertarako. Distira ilun bat barrentzen zen korridorean. Elkarrekin irteerantz. Basia desenkusatu egin da. Ez du aurpegi gehiago ikusi nahi. Ahotsaren tonu bera du beti, agian ahulagoa. Sorra. Aski da.

Gehiago jakin nahi baduzu, zoaz eta bihur zaitetz zu zeu —diote bere begi zorrotzek—, bihur zaitetz zu zeu biktima.